

# ximple!





## Agoizko Udala | Ayuntamiento de Aoiz

18. zenb. | nº 18

2020ko martxoa

### ZERBITZUAK | SERVICIOS

Udaletxea | Ayuntamiento

948 33 60 05

Euskara Zerbitzua | Servicio de Euskera

948 33 65 65

Kultur Etxea | Casa de Cultura

948 33 66 90

Cederna Garalur

948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Servicio Social de Base

948 33 40 95

Liburutegia | Biblioteca

948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua |

Colegio e Instituto San Miguel

948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara | Visitas guiadas a Iglesia

637 44 81 07

Dya

948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak | Bomberos Voluntarios

948 33 65 00

Udal Pilotalekua | Frontón Municipal

948 33 61 64

Kirol Gunea | Complejo Deportivo

948 33 67 06

### AURKIBIDEA

- 3 2020KO AURREKONTUA ONARTU DA  
AGOIZKO UDALA, AUZOEKIN
- 4 UDAL TXIKI BERRIA ERATU DA  
JUBILOTEKARI BURUZ  
HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAN IZANDAKO BILERA
- 5 EL IRATI, S.A. ERAKUSKETA ZENTROA INAUGURATU DA
- 6 CEDERNA-GARALURREN URTEKO BALANTZEA  
BICIMUGI PROIEKTUA
- 7 AGOIZKO AZAROAREN 10EKO HAUTESKUNDEEN EMAITZA  
URTARRILAREN 30EKO GREBAREKIKO ATXIKIMENDUA  
ELOKO TEILERIAKO MEMORIAREN PARKEA INAUGURATU DA
- 8 GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ZIKLOA  
UDALAK EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKA
- 9 AZAROAREN 25ARI BURUZKO ADIERAZPENA ONARTU DA  
FEMINISMOEN LANDA ESKOLA  
NESKENTZAKO ETA AMENTZAKO MENARKIA TAILERRAK, AGOITZEN
- 10 MATERIA ORGANIKOAREN ETXEZ ETXeko BILKETA  
BOLUMEN HANDIKO OBJEKTUAK: KALEAN EZ
- 11 ENERGIA AUTOKONTSUMOAREN ONURAK  
GURE INGURUNEAREKIKO ERRESPECTUA ESKATZEN DUGU
- 12 FAMILIA ORIENTAZIO ZERBITZU BERRIA 0-3 URTE BITARTEKO ESKOLAN  
HAURRENGANAKO LEHEN SOROSPEN IKASTAROA  
BIGARREN ESKUKO MERKATUAREN VIII. EDIZIOA
- 13 SABINO CUADRAK AGOITZEN AURKEZTU ZUEN 'INO OS IMPORTE MATARI' BERE LIBURUA  
'HERRI TXIKI, INFERNU HANDI' SAIO BAT AGOITZEN GRABATU DA  
AGOITZ ETA ZANGOZA ARGAZKIAREN OBJEKTIBOAN
- 14 KULTUR BALANTZEA
- 15 EGUERRIETAKO BALANTZEA  
ASPALDITIK GATOZ ETA URRUTIRA GOAZ. EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA. D EREDUA  
AGOITZEK PARTE HARTUKO DU 2020.EKO EUSKARALDIAN
- 16 FUTBOL ZELAIKO BELARRA INAUGURATU DA  
ABENDUAREN 28AN, AGOITZEN, BI INOZENTADA

## 2020KO AURREKONTUA ONARTU DA

Agoizko Udalak 2.402.600 euroko aurrekontua kudeatuko du aurten. Azken urteetako zorrotasun irizpideari jarraituz, aurreko ekitaldikoa baino pixka bat murriztagoa izanen da, eta horrek ez dio obra garrantzitsuak edo sakoneko inbertsioei aurre egiten utziko. Hala eta guztiz ere, 70.000 euro inguruko partida aurreikusitako da, ikastetxe publikoan premiazko erreformei ekiteko.

Herriak egingo dituen beste inbertsioen artean, 70.000 euroko partida bat ezarri

da, Diaz etxeko jabetzaren %50a erosteko negoziaketarako bideratuko dena. Jardunaldi ekonomiko berri honetarako aurrekusten diren gainerako inbertsioak bulegoko ekipamendua, lorategiak mantentzeko makinak edo jubilotekarako altxariak erosteko izango dira.

**BESTE AKORDIO BATZUK.** Udalbatzak plantilla organikoa ere onartu zuen, aurreko urteetako bera hain zuzen. Bestalde, 2020.eraiko udal zergak eta tasak ez igotzea

erabaki zen (JEZ, EOZ, ura, zirkulazio zerga, kirol instalazioak eta musika eskola). Soilik 0,22tik 0,25era handituko da ekarpena, Tokiko Maparen lege berriak eskatzen duen bezala. Igoera txiki hori 50.000 euro ingurukoa izango da.

Gainera, Kanpondoa elkarte publikoaren aurrekontua (466.000 eurokoa, 150.000 udal ekarpena duena) eta musika eskolako patronatuarena (153.015 eurokoa, 34.000 udal ekarpena duena) ere aurrera atera ziren.



## AGOIZKO UDALA, AUZOEKIN

Joan den azaroan berriro egin ziren Agoizko Udaleko arduradunen eta herriko auzoetako bizilagunen artean egiten diren urteroko bilerak; kezak, iradokizunak edo erreklamazioak jasotzea dute helburu. Aurelio León aretoan egindako bi topaketek auzoetako bizilagunek beren proposamenak udalbatzari aurkezteko balio izan zuten, beste urte batez. Lehen bilera Alde Zaharra, Landakoa, Pasaleku, Irigai eta Toki-Eder auzoekin egin zuten. Bigarren topaketan, berriz, San Migel, Txantrea, Domingo Elizondo, Larrinetako etxe-multzoa eta herriko urbanizazioetakoekin egin zen. Ehun bat herritar herritarrek elkartu ziren bi saioetan, udalak emandako informazioa arretaz entzuteru.

Bilera horiek duela zenbait urte antolatzen hasi ziren, eta, Ángel Martín Unzué alkateak azaldu zuenez, «Agoizko auzotarren kezak, iradokizunak edo erreklamazioak



ezagutzek balio dute. Prozesu parte-hartzaile honetan sortzen diren ideia guztiak aztertu eta hausnartu egiten dira, ahal den neurrian, udaleko arlo desberdinetako lanetan eta, hala badagokio, urteko aurrekontuetan sartzeko». Gainera, auzokideen arteko harreman erronda horiekin, udalak gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, eta indartu egiten du, bertarutzen diren pertsona guztiei aukera emanez beren auzoetan hautemandako eskaerak eta arazoak planteatzeko eta udalkudeaketa zuzenean ezagutzeko.

Aurten, ohiko gaiez gain (espazio komunen hobetzea, tamaina handiko hondakinen jasotzea, lorezaintza eta animaliak), bi gai nagusi agertu eta eztabaidarako bete eman zuten. Estreintatu berriko ibilgailuen trafikoaren ordenantza eta herriko argiteri publikoaren ordezkatzeko (udalari urtean 80.000 euro inguru aurrezteko ekarriko dio).

ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotzietatik osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiek aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

## UDAL TXIKI BERRIA ERATU DA

Joan den azaroan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek udal osoko bilkuren artoan egin zuten bozketa, eta bertan hautatu zuten korporazio txiki berria, 2020an txikienak ordezkatzeko dituen hainbat ekitalditan, aurreko udal txikiek ekitaldi eta konpromisoetan parte hartzeari dagoen azken urteotan egin duten bezala. Udal berriaren emanaldien estreinaldia las-ter izango da, Eguberrietan Olentzerori eta Errege Magoei harrera eginez.

Ibon Arrondo Madurgak lekukoa hartuko dio kargua uzten duen Elena Vicente Martinez, eta hurrengo urte osoan lehen zinegotziaren lana beteko du. Honako hauek dira udalbatza osatzen duten gainerako zintzi txikiak: Matei Ungureanu, Ander Baztan Carreras, Iñigo Leache Viñuales,



Mohamed Salem Ali, Adrian Merino Ugal, Judith Hernández García, Nagore Aquerreta De Gracia, Blanca García Alberch,

Aitana Gorricho García, Maialen Orradre Egea, Ainhoa Pruaño Mina, Diana Pétrea eta Alazne Prieto.

## JUBILOTEKARI BURUZ

Dagoeneko hilabete batzuk dira Agoizko Udala jubilotekaren bidez eskaintzen duen zerbitzu berria ematen ari dela, eta esperientzia guztiz positiboa izaten ari da, bai kudeaketari dagokionez, bai baliabide horren erabiltzaileei dagokionez ere.

Zerbitzu honek pertsonen autonomia eta hobekuntza bio-psiko-soziala sustatzea du helburu, eta baita zahartzeari lotutako narriadura fisiko, sozial eta kognitiboa prebenitzea ere, jarduera fisikoen (gimnasia, gerontogimnasia, erlaxazioa) eta estimulazio kognitiboaren (memoria indartzeko ariketak, tailerrak eta jolasak) bidez, erabil-

tzaileren ongizatea sustatzeko.

Jubiloteka (Gizartetxea -bizezainen etxea izandakoa-) asteleheneetik ostiralera irekitzen da, 10:00etatik 13:00etara, eta bertara joateko baldintzak hauek dira: gutxienez 65 urte izatea, herriko erroldan agertzea eta mendekotasun larria edo mendekotasun handia aitortuta ez izatea. Kuota 30 eurokoa da hilean, eta izen-emateak Udalaren eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuaren

bidez tramitatzen dira, azken hori baita eskaera bakoitzaren egokitasuna baloratzen duena, pertsona bakoitzaren eta taldearen beharren arabera.

Joan den urtarrilaren 1etik, jubilotekak zerbitzuaren teknikari arduradun bat du, eta bertan zenbait plaza huts gelditzen dira oraindik. Behin jarduera hori finkatuta, sare lana egin nahi dute osasun zentroarekin eta Kanpondoarekin.



## HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAN IZANDAKO BILERA

Ángel Martín Unzué alkateak eta hainbat udal ordezkari bilerak bat izan zuten Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin, ikastetxeen erreformak egiteko premiaren berri emateko.

Agoizko Udalaren arabera, eraikinean egin beharreko obrek 350.000 euro egingen dituzte (teilatua kontuan hartu gabe). 2020ko aurrekontuetan obra horietarako 70.000 euro aurrikusi arren, Agoizko Udalak ezin dio inbertsio horri aurre egin.

Azken urteetan, diru-laguntzak jaso ahala, hainbat obra egin dira ikastetxeen: komunak konpondu, sarbide-arrapala egin, besteak beste.

### HEZKUNTZAKO AURREKONTUARI BI ZUZENKETA ONETSI DIRA AGOIZKO IKASTETXERAKO

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak Foru Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuari aurkeztutako 93 zuzenketa partzialetatik 18 onartu zituen, guztira 1.935.000 euro egiten dituztenak.

Onartutakoen artean daude, besteak beste, bi zuzenketa, Agoizko Udalak aspalditik egindako premiazko aldarrikapenari erantzuten diotenak. Batek Agoitzen DBHI berri bat eraikitze proiektua egitea ahalbidetuko du, eta bigarrenak, berriz, Agoizko San Migel LHiko egungo instalazioak egokitzeko eta hobetzeko obrak egitea.

Agoizko institutuaren proiektuak Hezkuntza Departamentuak egindako aldeko txostena du, azken 13 urteetan %50 igo baita ikasleen kopurua. Horretarako 80.000 euro bideratu dira. EH Bilduk aurkeztutako "Agoizko DBHI berri baterako proiektua" izeneko zuzenketa hori talde guztiek babestu zuten, Nafarroa Sumak izan ezik.

Horrez gain, eta beste zuzenketa bat onartzeari esker, Agoizko San Migel ikastetxe publikoarentzat 70.000 euro bideratuko dira, ikastetxe hainbat obra eta hobekuntza egiteko. Gaur egun, ikastetxeak 506 ikasle hartzen ditu, eta premiazkoa da egokitzeko lanak egitea, eraikinak 43 urte dituelako.

## EL IRATI, S.A. ERAKUSKETA ZENTROA INAUGURATU DA



El Irati S.A. buruzko Erakusketak badu, dagoeneko, espazio iraunkorra Agoitzen. Udaletxean duela gutxi egindako obraren ondoren, estalkia aldatu eta areto guztietara iristeko igogailu bat jarri da. Lanak aprobetxatu ziren eraikinaren hirugarren solairuan orain arte garbata gisa erabili den espazioa egokitu eta bertan espazio berri bat sortzeko. Foru Gobernuak Cederna-Garalurren bidez bultzatzen duen 'Nafarroako Mendialdea' Landa Garapenerako Planari esker lortu da lekua egokitzeko finantzazioa. Hortaz, El Irati, S.A. enpresari buruzko erakusketa iraunkor bilakatu da Erakusketa Zentroa.

Urtarrilaren 10ean ireki zituen ateak modu ofizialean. Ekitaldi xume batean bildu ziren prozesuan parte hartu dutenak (egileak, laguntzaileak), udal ordezkariak eta Foru Gobernuaren ordezkariak, bai eta Cederna-Garalurreko garapen-eragileak ere.

Guztiak Iratiko Natur Bidearen proiektuan inplikaturik daude ere, aurki errealtate bihurtuko dena. Ángel Martín Unzué Agoizko alkateak erakusketaren helburuak jaso zituen hitzaldi labur batean: herriaren hain errotutako zen enpresa-mugarri horren memoriari eustea; herritarrek Pirinioarrek kultura eta ingurumen balioei buruz heztea, azken urteotan Irati ibaiaren Natur Bidea eta Eurovelo 3 sarea berreskuratzeko proiektuekin egin nahi den moduan. Gainera, Zerrategia auzoko industria ondarea babesteko eta berreskuratzeko neurriak hartzeko premia azpimarratu zuen, irtenbideren bat izateko beharra baitu.

12 azalpen panelek osatzen dute erakusketak, enpresak izan zituen adar guztiak errepasatzen dituztenak; horretaz gain, argazki zaharrak biltzen ditu, baten bat inoiz argitaratu gabea. Aretoan, Ekaiko zerrategiko gunea irudikatzen duen maketa handi bat

da nagusi, eta beste bi espaziotan, Agoizko tren-geltokiko eta eskulua batekoa daude. Ikusentzunezko 3 proiektuak osatzen dute erakusketa: «Pagoa», «Agoizko destilategia» eta «Iratia tren, Espainiako trakzio elektrikoaren aitzindaria».

Erakusketa ikusteko bisitatzeko hitzordua eskatu behar da aldezturik (15 lagun, gehienez) telefono zenbaki honetara deituta: 637 448 107.

XX. mendearen hasierako faktoria garrantzitsu horren memoria bizirik mantentzeko, bai eta Agoizti eta eskualdeari ekarri ziona ezagutzera emateko ere, ideia 2017an sortu zen, Agoizko Kultur Etxean aldi baterako egin zen erakusketaren ondoren (Nafarroako Artxibategi Orokorrean eta Eguesibarko Udaletxean ere ikusgai egon zen). Agoizten 1.600 pertsona inguru hurbildu ziren diziplina anitzeko enpresa-multzorik hori ezagutzera. Domingo Elizondok 1907. ean sortua, Agoizko eta eskualde osoko industriaren motorra izan zen, eta mila langile baino gehiagori eman zion lana enpresako atal guztien artean: zentral elektrikoak, ibaia, tren, zerrategia, destilategia...

Azken urte hauetan, Agoizko Udalak sentimendua handia erakutsi du ondarearekiko eta memoria historikoarekiko, eta proiektu handinahiak sortzearen aldeko apustua egin du, bere balioa erakusteko eta berreskuratzeko. Izan ere, urtero aurrekontu-lerro bat bideratzen da horretarako; horri esker sortu dira, besteak beste, «Agoiz, iragana gogoan» liburua eta DVDa, «El Irati, S.A.» iri buruzko erakusketa eta «Agoizko Istoriak» erakusketa.

3ª planta. AYUNTAMIENTO • 3. solairua. UDALETXEA

centro expositivo  
**EL IRATI S.A.**  
erakusketa gunea

Maquetak • Paneles • Fotografías • Documentales  
Maketak • Panelak • Argazkiak • Dokumentalak

AFORO LIMBUKERO  
15 personas  
TREN MUGAKETAN

Visita  
cita previa  
637 448 107  
Ikasteko,  
zita eskatu

VISITA AL CENTRO EXPOSITIVO "EL IRATI, S.A."  
"EL IRATI, S.A." ERAKUSKETA GUNEA - BISITALDIA  
Grupo mínimo de 10 personas / Gasteak berak hartuak. 10 pertsona  
Guztira informazioa: 15 pertsona, 20 € bakoitza / 10 pertsona baino gehiago: 20 € gero

2 € pertsona bakoitza



Agoizko Udalak, LGENF Europako Funtzak eta Nafarroako Gobernuak (Cederna-Garalurrek kudeatzen duen 2014-2020 aldirako LGPren bidez) finantzatu dute proiektua.



## CEDERNA-GARALURREN URTEKO BALANTZEA

Cederna-Garalur Garapen Agentziak urteko ohiko jarraipen bilera egin zuen, eta 2019ko balantzea egin eta 2020ko lan-ildoak aztertu ditu.

Bertan, Nafarroako Landa Garapenerako Programaren Leader proiektuen inguruan egindako jarduerak azaldu ziren. Horien artean daude Gizartetxea, inauguratu berri den El Irati Erakusketa Zentroa eta gure herriko negozio-ekintzaileei emandako laguntza. Eskualdearen despoblazioaren arazoa aztertu zen, nahiz eta gure herriak gora egiten jarraitzen duen (+% 2,7 azken urtean), bai eta eskualdeko enpleguaren inflexio negatiboa ere, gure udalerriari ere eragin diona, 22 langabe gehiagok izena eman baitzuten enplegu-bulegoetan; hala, zenbait urtez izandako beheranzko joera hautsi da. Gizonezko langabeen kopuruak gora egin du, eta emakumezkoenak berdin jarraitu du. Gaur egun, Agoizko langabezia-tasa %10ekoa da: biztanleria nazionalaren langabezia, % 8,5ekoa, eta atzeritarrena, % 19,8koa. Aurrepirinio osoan Agoitzen sustatu dira ekintza proiektu gehien. Agoi-

tzen ere hainbat prestakuntza ikastaro eta tailer egin ziren langabetuentzat eta enpresentzat.

Industrian, turismoan eta zerbitzuetan eragina duten sektore ekonomiko guztiak aztertu ziren, baita ingurumenarekin zerikusia dutenak ere (klimaren, energia aurrezpenaren, ekonomia zirkularren eta Agenda 21en aldeko alkatetza-ituna), kultura-ondarea eta proiektu enblematikoak (Iratiko



## BICIMUGI PROIEKTUA

2019ko udaberrian, Agoitz, beste bazkide batzuekin batera (Nasuvinsa sozietate publikoa buru), Mugikortasun Iraunkorrek Txirindularitza Ibilbide bat egiteko Bicimugi proiektuan sartu zen. EuroVelo 3 Ibilbidearen edo «Erromesaldien Ibilbidea» ere deitukoaren barneko egitasmoa da. Eurovelo Europako kontinente osoa lotzen duen distantzia luzeko 15 bizikleta ibilbideko sarea da.

Proiektua joan den urrian onartu zen, eta aurkezpen ofiziala Donapaleun (Pirinio Atlantikoetako Departamentua) egin zu-

ten, joan den otsailaren 7an. Bertara joan zen Ángel Martín Unzué Agoizko alkatea. Zehazki, Pirinio Atlantikoetako departamentu fran-tsetetik sartzen den Bicimugi proiektuaren helburua da mugaz alde honetako eta kaltetako erromatarren ondoan igarotzen den honako ibilbidea egokitzea: Orbaizeta, Auritzeko ordokia, Artzibar eta Agoitz. Agoizko karrikak zeharkatzen ditu ibilbideak, Iratiko Bide Naturalean barna jarraitzen du Iruñeraino eta han, Done Jakue bidearekin lotzen da.

Proiektuaren aurrekontu orokorra 4 milioi eurokoa da, eta horietatik Nafarroan

Bidea, Agoitzen barna igaroko den Bicimugi-Eurovelo 3 proiektua), Ekaiko Zerrategia auzoa, Solano enpresa izandakoaren instalazioen birmoldaketa edo Itoizko urtegiaren goialdeko uharken eremuko garapena.

Laburpen gisa, 2019an, Agentziak 137 proiektu kudeatu dira; horietako 60 pribatuak izan dira eta 77, publikoak. Azken horiek Cederna-Garalurreko jardueraren eremuko udalek sustatu zituzten.

1.140.300 euro exekutatu dira. Proiektua Espainia, Frantzia eta Andorrako Lurralde Lankidetzarako Programak (POCTEFA) finantzatzen du, 741.195 euroekin, eta gainerakoa Nafarroako Gobernuak jartzen du. Exekuzio epea 2020-2022 da. Aurten proiektua idatziko da, eta 2021ean obrak burutuko dira. Lurren eta seinaleen gaineko inbertsioez gain, zabalkunde eta sentsibilizazio ekintzak egingo dituzte.

Honako hauen diraproiektuaren bazkideak: Pirinio Atlantikoetako Departamentua, Frantziako toki entitateak, Errioxako turismo departamentua, Nasuvinsa eta European Cyclists' Federation-a. Bazkide gisa Orbaizeta, Luzaide, Orreaga, Auritz, Erroibar, Artzibar, Longida eta Agoizko udalak daude, baita Aranzadi Zientzia Elkarte eta Cederna-Garalur ere.

Bazkideen, alegia Agoitzena ere, konpromisoak dira proiektua zabaltzen eta sustatzen laguntzea, hala nola beren udaldermia igarotzen duen ibilbidearen zatia mantentzen laguntzea. Proiektu honek gure herria balioan jartzen du; izan ere, eskualdeko, estatuko eta Europako lehen mailako ibilbide handi batean kokatzen du.


Proiektuaren berri emango dugu hurrengo udal-aldizkarietan.

## AGOIZKO AZAROAREN 10EKO HAUTESKUNDEEN EMAITZA

Joan den azaroaren 10eko hauteskundeetan, parte-hartzearen portzentajea ia 10 puntu jaitsi bazen ere, EHBildu herrian babes gehien jaso zuen indarra izan zen. Hala, talde abertzaleak bere lehen postua sendotu zuen, 465 botorekin (% 33,2tik % 37,9ra), eta 7 botorekin (apirilean egindako

hauteskundeekin alderatuta). Gainera, Bel Pozueta buru zuen koalizioak bigarren indarrak baino, PSOE (230 boto) alegia, botoen bikoitza eskuratu zuen. Apirileko hauteskundeekin emaitzekin alderatuta 31 boto galdu zituen talde sozialistak. Unidos Podemos, 220 boto, hirugarren postura erori

zen, ia bi puntu eta 50 boto galdu ondoren. Nafarroa Sumak (UPN-PP-Cs), guztira, 189 boto jaso zituen, eta 23 boto galdu zituen, apirilean egindako hauteskundeekin alderatuta. Geroa Bai-k 54 boto paper bildu zituen, apirilaren 97aren aldean.



Partidos	% voto	Abril	Nº votos	Dif. Abril
↑ Bildu	37,99%	33,24%	465	+7
↓ PSOE	18,79%	18,94%	230	-31
↓ UP	17,97%	19,59%	220	-50
↑ NA+	15,44%	15,38%	189	-21
↓ GBAI	4,41%	7,04%	54	-43
↑ Vox	3,35%	2,90%	41	+1
↓ Pacma	0,33%	0,87%	4	-8

## URTARRILAREN 30EKO GREBAREKIKO ATXIKIMENDUA

Agoizko Udalak urtarrilaren hogeita hamarrean egindako greba orokorrari atxikitze mozia onartu zuen osoko bilkuran. Geldialdia Gizarte Eskubideen Gutunak deituta izan zen, lan baldintza eta pentsio eta bizitza duin batzuen alde pentsiodunen mugimenduak egindako eskariari erantzunez.

Pentsioen gaia pertsona guztioi dagokigu, bai egungo pentsiodunei, bai etorkizuneko; eta ezinbestekoa da lan-baldintza

duinen aldeko borroka egitea, bai eta gizarte-eskubideak bermatzeko ere. Eskubide Sozialen Gutunak eta pentsiodunen mugimenduak adostutakoari jarraituz, Agoizko Udalak Madrilgo Gobernuari eskatzen dio, besteak beste, 2011n eta 2013an onartutako pentsioetarako murrizketak indargabetzea, hala nola Zapateroren eta Rajoyren lan-erreformak ere.

Era berean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio premiaz ezartzeko gutxieneko

pentsioa eta soldata, 1.080 eta 1.200 euro, hurrenez hurren. Gainera, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala ezabatzea eskatzen da, bai eta ezarritako lanaldi partzialak ere, batez ere emakumeei aplikatzen zaizkienak.

Lanaldia 35 ordura murriztea, soldata murriztu gabe, eta kontratazioaren mozioan inolako diskriminaziorik ez dagoela bermatzea dira mozioak jasotzen dituen beste arazoietako batzuk.

## ELOKO TEILERIAKO MEMORIAREN PARKEA INAUGURATU DA

83 urte igaro dira egun lazgarri haietatik, eta hiru urte tramiteak egiten, eragozpenen eta lan gogorran ondoren, joan den abenduaren 14an Eloko Teileria Memorialaren Parkea inauguratu zen, 50 pertsona inguru bildu zituen ekitaldi hunkigarri baten bidez. Senitartekoak, lagunak eta gobernu eta udaleko ordezkariak joan ziren hitzordura, eta, horrela, Nafarroako memoria-gune berri bat gehiago dago, legeak bizikidetzarako, memoriarako, bakerako eta etorkizunerako ikaskuntzarako leku izendatu eta babestutakoa. Eloko Teilerian ehundik gora pertsona hil eta lurperatu zituzten 1936ko abuztua eta azaroa bitartean, II. Errepublikaren aurkako kolpe militar frankistaren ondorioz.

Agoizko Udala, Teileria Memorialaren Parkearekin batera, eta duela gutxi Eloko udal ere, izan da parke horren sustatzailea. Tunelaren ondoan eta Nafarroako ubidearen urak orain urpean utzitako hobi zahararen

gainean kokatu da. Gune berri hori egiteko lanek 15.000 euro inguruko kostua izan dute; hainbat udal eta elkarrekin ekarpenekin ordaindu da eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du.



Eloko parkeko monumentu nagusia, bertan gertatutako izugarrikeria gogoratuko duena, Patxi Aldunate eskultore nafarraren lana da. Bere hitzetan, «Hobiaren berpiztea da, non altzairuzko lau teila handi (herri guztiak eta biktimen izenak biltzen dituztenak) lurretik ateratzen diren. Min eta agonia oiher bat da, baina, aldi berean ere, askatasun, erreparazio eta justizia oiher bat, haizeak eskultoretan irekitako zuloak zeharkatzen dituen bakoitzean aieratuko duena». Historiarako izenak dira jada, Nafarroako hobi komun handiaren, non agoizko hamaika bizilagun ageri diren.

Txalaparta, txistua, aureskua, olerkiak, testigantzak, bertsoak eta musikak merezitako omenaldia apaindu zuten gerraren biktimak eta haien familiak ohoratzeko, eta, gainera, egia, justizia eta ordaina aldarrikatu zituzten.



## GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ZIKLOA



NBEren Batzar Nagusiak erakunde guztiek, azaroaren 25aren inguruan, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoari buruz iritzi publikoa sentsibilizatzeko jarduerak programatzeko eskatu du.

Agoizko Udaleko berdintasun eta kultura arloek, Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera, hainbat urte daramatzate hirian ekitaldi-ziklo oso bat programatzen.

Aurtengo edizioan, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, bost jarduera izan ziren. Lehen hi-

tzordua, Ruth Iturbidek aurkeztuta, zinema foruma izan zen, eta «Zaintza partekatua» filma eman zen.

Liburutegian, Virginia Morionesek familiei zuzendutako «printzesa eta herensugea» ipuina interpretatu zuen.

Samanta Veltek Yo sí te creo liburua aurkeztu zuen, 2016ko Sanferminetako talde bortxaketan oinarritua.

Igandean, hilak 24, Nafarroa Beherea plazan sexu-erasoen aurkako ekitaldia egin zen. 69 kanpai-hotsek lagundu zieten

hainbeste laguni mosaiko «more» bat osatzen eta Aske Maite, Aske bizi» dantzatzen. Ekitaldi nagusia amaitu zen komunikatu bat irakurriz eta aurrekoa dantzatuz.

Astelehenean, hilak 25, udaletxeko ateetan elkarretaratzea egin zuten emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna zelako.

500 pertsona inguruk parte hartu zuten Indarkeria Sexistaren aurkako ziklo honetako ekitaldietan.



## UDALAK EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKA

Nafarroako 80 toki erakunde baino gehiagok, tartean Agoitzek, bat egin zuten 'Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako udalak' kanpainarekin, genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna-

ren baitan. 'Mugi zaitez' lelopean, aurtengo kanpainak mobilizatzeko eskatu die gizonen, «Pertsona guztien arteko benetako berdintasun-egoerak eta emakumeen aurkako indarkeria sortzen dituzten desberdintasun guztien aurka» lan egiteko konpromisoa ere. Gainera, errealitate horren aurrean «konpromiso eta jarrera aktiboak hartzeko» eskatu zieten gizonen, eta «euren pribilegioak zalantzan jartzeko» eta «berdintasunerantz aldatzeko eguneroko aukera txiki eta handi guztiak identifikatzeko».

Atxikitako erakunde guztiek adierazpen bateratu batean adierazi zuten indarkeria sexista oro gaitzesten zutela, bai eta «zaugarritasun-egoerak eta emakumeen aurkako indarkeria sortzen dituzten desberdintasun guztien aurka» lan egiteko konpromisoa ere. Gainera, errealitate horren aurrean «konpromiso eta jarrera aktiboak hartzeko» eskatu zieten gizonen, eta «euren pribilegioak zalantzan jartzeko» eta «berdintasunerantz aldatzeko eguneroko aukera txiki eta handi guztiak identifikatzeko».

Kanpainaren aurkezpenean parte hartu zuten Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioko (FNMC) presidente Juan Carlos Castillok eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuko zuzendari Eva Isturizek. Agoitzetik Ángel Martín Unzué alkatea eta Marisa Goñi berdintasun arloko zinegotzia joan ziren hitzordura.



## AZAROAREN 25ARI BURUZKO ADIERAZPENA ONARTU DA

Azaroaren 25a «emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna» zela eta, Agoizko Udalak adierazpen instituzional bat onartu zuen osoko bilkuran. Adierazpen horretan, udalak bere gain hartu du Agoitz indarkeria matxistaren mota orotatik libre egongo dela bermatzeko erantzukizuna, eta berretsi egiten du lehentasunezko konpromiso politikoa duela haren adierazpen guztien eta haren egiturazko arazoien aurkako borrokan.

Era berean, Agoizko udalak bere egiten du Emakumeen Mundu Martxak bultzatutako indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko aurrekontu-partidak handitzeko eskatzen dio Nafarroako Berdintasunerako Institutuari.

Gainera, Agoizko udalak borroka feministarekiko konpromisoa berretsi du, indarkeriarik gabeko gizarte demokratikoa eraiki-

tzeko bide eta tresna nagusi gisa.

Konpromiso instituzionalaren eskutik joan behar da konpromiso soziala. Horregatik, udalak animatzen du indarkeria gaitzesteko edozein ekitalditan parte hartzea, eta egoera horretan dauden emakume guztiei aitortza eta babesa ematera, emakumeentzat berdintasunezkoa, bidezkoa eta indarkeriarik gabekoa den gizarte bat lortzeko lan eginez.

## FEMINISMOEN LANDA ESKOLA

Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak «feminismoen landa-eskola» ikastaroa antolatu zuen apiriletik abendura, IPES Fundazioarekin koordinatuta, erakunde horren feminismo-eskolaren hamahiru ediziotan izandako esperientzian oinarrituta.

Sei bloketan diseinatuta, feminismoaren historiako edukiak jorratu ziren, ibilbide bat eginez aitzindari eta sufragistetatik, sozialista eta anarkistetatik, Simone de Beauvoiraino eta emakumeen askapenaren feminismoa. Gainera, XX. eta XXI. mendeko feminismoak azpimarratu ziren. Azken bi saioetan generoa eta boterea bezalako gaiak jorratu zituzten.

Hainbat emakume izan ziren ikastaroa eman zutenak. Besteak beste, Pilar Bobes Fernandez, historialaria; Mauge Cañada Zorrilla, psikologoa; Itziar Ziga, kazetaria eta idazlea; eta Rut Iturbide Rodrigo, Giza eta Gizarte Zientzietan doktorea eta tailerren eta haren edukien koordinatzailea.

Ikastaroaren lehen edizio honetan, Mankomunitatea biltzen duen eremuko (Agoitz, Longida, Urrotz, Artzibar...) 18 emakumek parte hartzeko eskaria egin zuten.

Lortutako arrakasta dela eta, prestakuntza horrekin jarraitzea aurreikusten da, parte-hartzaileek hausnartzen eta ezagutza berriak eskuratzen jarrai dezaten.



## NESKENTZAKO ETA AMENTZAKO MENARKIA TAILERRAK, AGOITZEN

Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak urtamilean zehar menarkia tailer batzuk programatu zituen Agoitzen. Neskei eta amei zuzendutakoak ziren, eta María Muñoz Cobo Ciclicas y Diversas taldeko ki-deak eman zituen. Ikastaro horien helburu nagusia da emakumeen bizimodua erraztea, ohitura aberasgarri eta osasungarrien bidez, beren bizitzako hainbat unetan: lehen hilekoa eduki baino lehen edo menopausia ailegatu aurreko garaian.

Tailerretako saioak parte-hartzaileen adin tartearen arabera egokituta zeuden. Alde batetik, 10-13 urte bitarteko neskekin egin-dako jardunaldietan, oso modu dinamikoa



eta entrenigarrian jorratu ziren gaiak: pubertaroan eta nerabezaroan nolako aldaketak izaten diren, lehen hilekoa..., eta izan zitezkeen zalantza guztiak argitzeko aukera izan zuten.

Bestalde, zenbait amek ere topaketatan parte hartu zuten, eta ama eta emakume diren alditik, hileroko zikloen eta bizitako aldaketen beste ikuspegi batzuk aztertu ahal izan zituzten.

Zikloa ixteko, saio bateratu bat egin zen, oso aberasgarria eta positiboa, non bi taldeen arteko aurkikuntzak eta elkarrekiko sentimenduak alderatu ziren.

## MATERIA ORGANIKOAREN ETXEZ ETXEKO BILKETA

RSU Irati Mankomunitateak azaroan ekin zion Agoitz eta Urrotz herrietan ondo bereizitako zatiki organikoa etxez etxe biltzeko proiektuari.

Momentu honetan, 100 familia boluntariok parte hartzen dute bilketa "berri" horretan, izen-emate ordenaren arabera hautatu zirenak. Datorren urtean kanpaina 300 etxetara zabaltzea aurreikusita dago, 2023an biztanleria osora iritsi arte. Urte horretan, Europako Zuzentarauak eta Estatuko eta Foru Aldundietako Hondakinen Legeek zatiki organikotik ondo bereizita biltzera behartzen dute, eta isunekin zigortuko dituzte hori egiten ez duten edo modu desegokian egiten duten udalak.

Kanpaina honetan parte hartzen duten etxeei kubitu bat ematen zaie, non beren etxeetako organikoa ondo bereizita utzi

behar duten: fruta, barazki, haragi, arrain edo bestelakoen hondarrak. Etxeko atean uzten da, astelehen, asteazken eta ostiral goizetan jasotzeko, goizeko 08:00ak baino lehen. Orduan pasatzen da Mankomunitateko ibilgailu elektrikoa uanean bertan jasotzera: kubitua organikoarekin zuzenean deskargatu eta etxe atean itzultzen du.

Kanpaina honetan biltzen diren etxeetako janari hondar guztiak inguruko laborantza lurretan konpostatzen dira, modu horretan ekonomia zirkularren aldeko apustua eginez, baliabide horiek modu eraginkorrean erabiliz.

Banaketa zuzena izan bada kantitatean eta kalitatean, parte hartzen duten etxeei hoberiak ematen zaizkie urtero, gehienez ere 30 IRATI (30 euro), eta tokiko hainbat saltokitan onartzen da diru hori.




## BOLUMEN HANDIKO OBJEKTUAK: KALEAN EZ

Azken garaian, maiz, bolumen handiko objektuak topatu izan ditugu herriko zenbait lekuetako edukiontzietan, hala nola horien kanpoaldean. Gogorazi nahi dugu Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak doan eskaintzen duela etxe biltzeko zerbitzua.

Emauseko Traperok esleituta dauka tamaina edo ezaugarriengatik edukiontzietan sartzen ez diren objektuak etxez etxe jasotzeko zerbitzua. Objektuak oraindik erabiltzeko moduan baldin badaude edo konponketa erreza baldin badute, egokitu eta salgai jartzen dira Traperoen azokan; eta erabili ezin badira, hautsi eta piezaz pieza birziklatzen dira.

Objektuen bila joateko 948 33 62 17 telefonora deitu behar da, eta Irati HHS Mankomunitateak jakinaraziko du zein egun eta ordutan joanen den horren bila.

Denen artean ingurua eta herria zaindu behar dugu. Zaindu Agoitz, zure etxea baita.

**Whats-App informazio-zerbitzua.** etxez etxe materia organikoaren bilketa «berriari» buruzko informazio guztia (abisuak, zalantzak, gora-beherak ...) azkar eskuratzeko, Iratiko Hiri Hondakinen Mankomunitateak Whatsapp Informazio Zerbitzua eskaintzen du. Zer egin behar da zerbitzu hori aktibatzen/desaktibatzen?

- Telefono mugikorraren agendan 609 667 233 kontaktu berria sartzea, MRSU IRATI izenarekin.
- WhatsApp mezu bat bidali 609 667 233 telefonora, izena eta abizenak adierazita.
- Baja emateko, WhatsApp mezu bat bidali 609 667 233 telefonora.

**INFORMAZIO-OHARRA:** Difusio taldea Mankomunitateetik informazioa bidaltzeko baino ez da erabiltzen, eta bertan dauden pertsonak ez dute ikusten taldeko gainerrako pertsonen daturik edo mezurik.

## ENERGIA AUTOKONTSUMOAREN ONURAK

Herritarrak informatu, sentsibilizatu eta energia aldaketaren protagonista izatera eta energia modu eraginkorrean erabiltze-

ra animatzeko helburuarekin, foru gobernuako Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuak, Cederna Garalur eta Agoizko Udalarekin

batera, «Energia-autokontsumoaren onurak» izeneko hitzaldia antolatu zuen. David Gordejuela energia-zerbitzuetan aditua den eta efizientziaren zerbitzua 2015.ez geroztik kudeatzen duen Nasei enpresako industria-ingenariak eman zuen hitzaldia.



Bilkuran, zehatz-mehatz azaldu zen zertan datzan autokontsumo energetikoa eta zer onura dituen tokiko erakundeentzat, partikularrentzat eta enpresentzat. Honako hauek landu ziren: autokontsumo kolektibo bultzatzeko arau-berrikuntza garrantzitsuak, bai etxebizitzetan bai industrialdeetan, energia-soberakinak partekatzen aukera, autokontsumo berriztagarria, trasteak sinplifikatzea edo zergak ezabatzea. Gainera, Nafarroako Mendialdean azken hilabeteetan inplementatutako kasu praktikoak azaldu ziren.

Bilkura hori Nafarroako Gobernuak azaroan eta abenduan zehar Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Energia Plana 2030 Helmuga programaren barnean, zenbait herritan antolatu zituen Energia Sentsibilizazio III. Jardunaldien barnean.

## GURE INGURUNEAREKIKO ERRESPETUA ESKATZEN DUGU

Duela hilabete batzuk Agoizko Udalak seinale batzuk jarri zituen hainbat bidetan eta Iratiko Interpretazio Ibilbidean, motoen zirkulazioa debekatzeko. Zoritxarrez, badi-rudi pertsona batzuek ez dutela ongi hartu debekua, seinalez tapen guztiak etzanda agertu baitira. Agoizko Udalak gogorazi nahi du seinale horiek 36/1994 Foru Dekretuak ezarritako debekua gogorarazteko direla, izan ere arauaren 11. artikulua honako hau dio:

"Debekaturik dago motoredun ibilgailurik landetan zehar ibiltzea, errepideetatik kanpo edo bi metro baino zabalera txikiagoko landabideetan, suebakietan edo zura ateratzeko pistetan baina. Era berean, ez da onartuko Administrazioak espresuki debekatutako beste landa-bide edo pistetan baina zirkulazioa, bi metrotik goitiko zabalera izanagatik ere".

Neurri hori ez da errespetatu, eta gaur egun landabide horiek oso hondatuta daude, debekua betetzen ez duten motoen joan-etorria ohikoa delako.

Errespetua eta kolaborazioa eskatzen dizuegu berriz ere.



## FAMILIA ORIENTAZIO ZERBITZU BERRIA 0-3 URTE BITARTEKO ESKOLAN



Taupadak, Agoizko haur eskola, joan den azaroaren 11tik goizero ikastetxera joaten diren 32 haurren familiei laguntza emateko familia orientazio zerbitzua eskaintzen hasi

zen. Proiektu hau aitzindaria da haur-eskolaren esparruan, eta familien, hezkuntza-taldearen (7 profesionalak egiten dute lan 0-3 urtekoen agoizko eskolan) eta adingabeen

## HAURRENGANAKO LEHEN SOROSPEN IKASTAROA

Joan den abenduaren 17az geroztik, Agoizko 0-3 urteko Haur Eskolako langile guztiak badakite LifeVac Europe Ltd gailua erabiltzen. Heimlichen maniobra ezaguna ordeztu edo osatu nahi du gailu horrek, eta istripua izan ondoren berreskuratzeko aukerak handitu.

Horretarako Haurrenganako Lehen Laguntza ikastaroa egin zuten. Prestakuntza hori Centro Médico Pamplona izeneko entitateak eman zuen, eskolako instalazioetan, eta bertako langile guztiak trebatu zituen: zuzendaritza ekipoa, hezitzaileak eta jangelako eta garbiketako langileak.

Gailu berri hau edukita, Haur Eskola ito-

tzearen aurkako gune babestu bilakatu da. Berri garrantzitsua da, trafikoko istripuek bai-



## BIGARREN ESKUKO MERKATUAREN VIII. EDIZIOA

Zortzigarren urtez jarraian, eta goiz hotz eta euritsua izan arren, Sarean elkarrekin hasieratik antolatzen duen bigarren eskuko, birziklapen eta truke azokak arrakasta handia izan zuen, bai postuen kopurugatik eta baita ikusleen aldetik ere. Postu kopurua, aurreko urtearekin alderatuta, ia mantendu egin zen: 23. edizio honetan eta 24. iaz. Artisanu produktu ugari okupatu zuten frontoiko kantxa: eskulanak, arropa, liburuak, kremak, antzinako objektuak, lanak, eta tokiko artisautza, betiere material horietako batzuk berrerabiltzeko eta beste batzuei prezio sinbolikoetan irteera emateko asmoarekin. RSU Irati Mankomunitateak ere bere standa jarri zuen «IRATI»



tokiko txanpon kanpainan eragiteko eta txikientzako birziklatze-tailer erakargarriak eskaintzeko. DBHko 4. mailako ikasleek,

artean sarean lan egiteko ideiarekin jai da.

Zerbitzua doakoa da, eta familia erabiltzaile guztiak zuzenduta dago. Lourdes Diez Pedagogian lizentziadunak eta familia-bitartekaritzako teknikariak ematen du. Zerbitzu berritzaile horrek eskaintzen duen orientazioa adingabearen eremuan zentratzen da, eta familiaren gorabehera guztiak biltzen ditu, harreman biologikoaz gain. Azken batean, familiaren egitura berrantolatzea eta rola ez inbertitzea da kontua; izan ere, adin goiztiar horietan, eta hezkuntza-taldearen arabera, mugak eta arauak ezarri behar dira lehenbailehen zuzendu ahal izateko.

Taupadak kooperatibak bere gain hartutako tresna pilotu berri horiek harrera ona izan du familia erabiltzaileen artean, eta, oraingoan, hilean bi astelehenetan eskaintzen da hitzordua eskatzeko.

no pertsona gehiago hiltzen baitira gertaera mo horien ereginez.

## SABINO CUADRAK AGOITZEN AURKEZTU ZUEN 'INO OS IMPORTE MATARI!' BERE LIBURUA

Sabino Cuadra Lasartek 1978ko uztailearen 8an sanferminetan izandako gertaera lazgarriak eta horien aurreko eta ondorengo giroa berreraiki ditu liburu batean. Horretarako, oinarri izan ditu peñek idatzi zuten txostena, duela gutxi desklassifikatutako dokumentuak eta hainbat esparrutik egindako lan monografikoak, eta gutzia diktaduran eta trantsizioan zehar egindako gizateriaren aurkako krimenen testuinguruan kokatu du. «No os importe matari!» da liburuaren izena, eta duela gutxi Agoizko Kultur Etxean aurkeztu zuen.

Argitalpenak lau zati ditu, eta 1978an Iruñean izandako gertakariaren gako guztiak argitzen saiatzen da. Horietako batek «gertatu zena deskribatzea» du ardatz. Bigarren zati batek «zergatik gertatu zen» jorratzen du, eta horren gainean bi bertsio daude: bata, dena «akats sorta bat» izan zela de-

fendatzen duena, eta, bestea, dena «aurrez pentsatua» izan zela baieztatzen duena. Hirugarren zatia, berriz, «Zigorgabetasun, desmemoria eta gertakari horien inguruan lapurtu ziguten historia berreskuratzeko borrokaren berrogei urteko historia» kontatzea du helburu. Azkenik, laugarrenak honako hau du ardatz: «Egia berreskuratzeko lan hau eta memoria historikoaren frontearen egiten ari den borroka guztia uztartzea».

Gertatutakoaren egari dagokionez, Cuadrak momentuko bi baieztapen lotu zituen, bere ustez, 78ko sanferminetan gertatutakoa gaitzesten dutenak. Batetik, Poliziaren ofizial batek uztailearen 9an irati bidez emandako agindua ekarri zuen gogora, hau da, German hil eta hurrengo egunean, eta «ez zaizue axola behar hiltzea» izan zela. Eta, bestetik, Martin Villa

Espainiako ministroak urte hartako uztailearen 14an egindako elkarriketa batean egindako adierazpenak: «Gureak akatsak izango dira; haienak, aldiz, krimenak». Sabino bi adierazpenak argi eta garbi adierazi zuen: «Ez zaizue axola behar hiltzea, gureak akatsak izango baitira, eta haienak, aldiz, krimenak».



## 'HERRI TXIKI, INFERNU HANDI' SAIO BAT AGOITZEN GRABATU DA

Joan den urtarrilaren 26an, ETB1ek "Herri Txiki, Infernu Handi" programako saio bat eman zuen. Programak Agoitz zuen protagonista, eta Kultur Etxean grabatutakoa zen abenduaren 19an. Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleek eta Sebastian Lizaso bertsolariak Agoizko protagonistak eta parte-hartzaileak bildu zituzten auditorioan: Unai Lako, Maider Eskudero, Aitziber Martxueta, Luis M<sup>a</sup> Zabalza, dantzariak eta herriko gaitariak, Blanka Zazpe eta Kati Leatxe.

Saioa oso arrakastatsua izan zen, eta auditorioan bildutako publikoak ederki pasatu zuen, parte hartzaile agoizkoekin presta-

tutako esketx dibertigarriekin. Sketsetan, Agoizko gauza sinboliko asko erakutsi ziren: erraldoiak, Txokolaterearen Jota, "Xinple"

ezizenaren esanahia, kostrada... Baina hizpide izan zituen ere gauza gehiago: aeroyoga, zaldiak, poesia, garagardoa...



## AGOITZ ETA ZANGOZA ARGAZKIAREN OBJEKTIBOAN

Agoitz eta Zangoza berriz batu dira «Inter-cambiARTEz» erakusketa-ekimenean. Iaz egin zen lehen aldiz, eta bi herrietako artistek pinturaren bidez erakutsi zituzten beren sentimenduak eta begiradak. Aurten,

Agoizko eta Zangozako argazki-elkarteen arteko lankidetzaren ondorioz, bi herrietako kale, txoko, parke, eraikin eta abarren hogeita hamasei argazki erakutsi zituzten. Iradokitzaileago bihurtzen zaizkigun le-

kuen erretratuak, gaueko argi eta itzalekin ikusteak sortzen digun misterio eta erakarritasunaz inguratuta ikustean.

Urtarrilean zehar Agoizko Kultur Etxean bisitatu ahal izan zen. Otsailean Zangozako Vallesantoro Jauregian izango da gaueko argazkien erakusketa interesgarri hau. Erakusketa trantsizio honen helburua da kultura trukerako eta inguruko esperientzia artistikoetarako eta sormen ikuspegiarako loturak sortzea.

Ane Aleman, Ane Eugui, Juana Garcia, Asier Iglesias, Marisa Itoiz, Mikel Lacunza, Tere Leache, Ramon Leache eta Jaime Urtaşun dira erakusketa kolektibo honetan parte hartzen duten agoizkoak.



## KULTUR BALANTZEA



**AZAROA.** «Genero indarkeriaren aurka-ko zikloa» eta «bigarren eskuko merkaturaren, birziklapenaren eta trukearen VIII. Edizioa» programazio zabalaz gain, azaroan zehar kultur agenda osoaz gozatu ahal izan genuen, beste hainbat ekitaldiren bidez. Hala, Nazioarteko XXV. Abesbatza Zikloarekin hasi zen hilabetea. Mazsalacatik «Group Era bokala» iritsi zen Kultur Etxera, sei neska letoniar, bertaratutako publikoari ahots ikusgarriekin atsegin eman ziotenak.

Urteko azken hitzorduan, eta txistuaren doinuak zabalduz hainbat herritan ibili ondoren, Mugarik Gabeko Ttuntuneroak taldeak ehun bat txistulari bildu zituen berriro, eta aurreko edizioetan bezala, diana alai-ekin girotu zuten goiza. Gainera, Agoitzeko udal musika eskolak Santa Zeziliaren aldeko kontzertua eskaini zuen.

Marijose Recalde nafar artista ospetsuak «garai ezberdinetan» erakusketa eka-ri zuen Agoitzera. Erakusketa bikaina eta ezberdina da, eta bere lanen ezaugarri nagusia material ez oso konbentzionalak erabiltzea da, erreskatatzea gustatzen baitzaio bizitza luzatzeko, bere aukerekin esperimentatzeko eta haiekin modu berrian jolasteko.

Antzerkiak ere izan zuen bere hutsunea azaroan. Txalo Produzioa ekoiztetxearen «Descanse en paz» komedia zoragarririk arratsalde dibertigarria pasara ziola Agoitzeko Kultur Etxera joan zen publikoari.

Sare sozialetako pribatutasunari buruzko 12 urtetik gorakoei zuzendutako tailerra, eta Bilketak antolatutako kafe-kontzertuak osatu zuten hileko kultur agenda.



**ABENDUA.** Abenduan ohiko kultur agendari jarraitu zion, programatutako jardueraren gehienak Gabonak ospatzen murgilduta egon ziren arren.

Mariano Garcia bandaren emanaldia, Kultur Etxean Nafarroaren Eguna ospatzearen harira, arrakastatsua izan zen berriro ere. Ekitaldiak heritar ugari bildu zituen, eta urtero errepikatzen du auditoriuma betetzeko hitzorduari leial zaiola.

Agoizko hainbat taldek antolatuta, Gabonetako II. Elkartasun Musika Jaialdia egin zen, Senegalgo haur talibane laguntzeko. Jasotako dirua adingabe senegaldar horien osasun, hezkuntza eta garapen-proiektuetarako bideratuko da.

Bilaketak bi kafe-kontzertu eskaini zituen hilearen bi igandetan. Publiko anitza biltzen dute musika eta dantzarekin gozatzea helburu duten kontzertu berezi horiek.

Hilabete honetan zehar Kultur Etxeko Areto Nagusian erakutsi ziren Agoitz Hiria Argazki Lehiaketaren XIV. ediziora aurkeztutako lanak. Sari horiek jaso dituzten bi agoizkoei sariak emateko ekitaldia ere egin zen. Kategoriatan orokorraren saria Ramon Leache eskuratu zuen, eta heritarren kategoriako saria, berriz, Alfredo Leónnek eraman zuen.

Argazki erakusketarekin batera, José Hierro Aretoak Afrikara eraman gintuen erakusketan interesgarri bat hartu zuen. Bidaia bisual bat, haurrek herrialde honetan nola jolasten duten ezagutzeko, eta nola irudimenez eta trebetasunez beren jostailu propioak sortzen dituzten eskura dituzten materialetatik abiatuta. Ingeniaritza eta birziklapen lezio ederra.

Antzerkiak, bi formatu ezberdinetan, bere tarte izan zuen ere pasa den abenduan. «Teatro Forum», «Salto a escena-Oholtzara alto» proiektuaren baitako jarduerak, bi jardunaldi egin zituen ikastetxean, ikasleekin eskola-jazarpena edo bullying gaia lantzeko. Hilabetea amaitzeko, Tdiferencia konpainia nafarraren «Niko, banpiro txiki bat» musikaz gozatu ahal izan zen.

**URTARRILA.** Gabonetarako prestatutako egitarau anitza Errege Magoen kabalgatarekin amaitu eta, urtarrian ohiko kultur egutegiari ekin zaiola.

«IntercambiARTEz» Agoitz eta Zangozako argazkilarik elkarrekin erakusketa kolektiboaz gain, eta El Irati, S.A.aren erakusketaren ate irekien bi jardunaldi egin ziren. Angiluerreka Mendizale Taldeak, berriz, hitzaldia egin zuen, 2020rako bere egutegia aurkezteko.

Socorro Latasak, bestalde, «Al azar de los nombres» bere poemario berria aurkeztu zuen Kultur Etxean; bertan lekua dute eta akrostiko eran bildu ditu, besteak beste, lau elementuei eskainitako poemak: ura, lurra, airea eta sua, urtaroak eta hilabeteak.

Camut Ban taldea herrira hurbildu zen, perkusio afrikarra, tap dance, ahots eta dantza uztartzen dituen BID Drums» ikuskizun harrigarriarekin. Energia, freskotasuna eta originaltasuna dira ikuskizunaren ezaugarriak, zeinetan klake modernoenaren teknikak eta kultura ezberdinetako perkusioak bat egiten duten, eta ikuskizun magiko eta ezberdina lortzen dute.

Horretaz gain, Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoak argitaratzen duen «Etnografía de Navarra» bildumako «Barranqueadores y cablistas del Irati» estreinatua berriz dokumentala aurkeztu eta proiektatu zen. Eugenio Monesmak zuzendu eta Pirene PV.k ekoiztitako ikus-entzunezkoak El Irati fabrika zaharrari lotutako lan arriskutsuetako batzuk biltzen ditu, basoen barruan eta ibaian egiten zirenak. Lan horietaz arduratzen ziren espezialista koadrila batzuk: barrankeatzailak eta kablelariak.



## EGUBERRIETAKO BALANTZEA

Gabonetako jardueren programazioaren protagonismoaren zati handi bat musikak izan du, hainbat formatutan.

Agoizko Musika Eskolak Gabonetako ohiko kontzertua egin zuen Kultur Etxean. Ekitaldi horrek auditorium osoa bete zuen berriro.

Era berean, arrakasta handiz, Mariano Garcia Bandak eta San Migel Abesbatza Txikiak elkarrekin ekaintzen duten Gabonetako kontzertuez gozatu genuen. Era berean, Agoizko San Migel Abesbatzak, bere 75.

urteurrena zela eta urtebetez ospatzen ari zena. Biak elizan ospatu ziren.

San Migel Ikastetxeak Kultur Etxeko auditoriumean ospatu zuen urte amaierako festa, eta 0-3 urte bitarteko haur eskolak, bertako haurrek eta haien familiek alegia, Olentzeroen bisita partikularra izan zuen.

Beste urte batez, Udaleko kultura arloak euskarazko arte plastikoaren ikastaroa antolatu zuen. Patxi Huartek eman zuen, «Gabonetan plastikatzeko», eta 5 eta 12 urte bi-



## ASPALDITIK GATOK ETA URRUTIRA GOAZ. EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA. D EREDUA

Hori da Nafarroako Euskara zerbitzua duten udalek, eta, beraz, Agoizko Udalen ere, euskarazko irakaskuntza (D eredia) bultzatzeko aurten aukeratutako lema. Otsailaren 3a eta 7a bitartean zabalik egonen da eskolaz aurreratikularako epea. Aurrematrikularako egitean, hiru urteko haurren gurasoek gurasoek beren seme-alabentzako nahi duten eredia hautatu behar dute ere.

Kartelen, bideo baten eta sare sozialetan zabalduko komunikazioen bidez, euska-



tarako haurrei eskainitako 30 plazak bete zituen.

Eguberri hauean, gainera, herrian zehar ikusi izan ahal ditugu Jaiotzagileen Elkar- teak egindako jaiotzak, Bilaketako Ahots eta Instrumentu Taldearen kantuek eta musikaz girotuta; Olentzero eta, lehenengo aldiz, Maridomingi etorrera ospatu genuen; Ekialdeko Erregeen pajeak haurrei harrera egin eta haien eskutitzak jaso zituen; eta Errege Magoen Kabalgataz gozatu ahal izan genuen.



razko irakaskuntza oso interesgarria dela azaldu nahi diete familiei, hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen duen hezkuntza tekniko eta humanoa izateaz gain, gertuko kulturaren gozamenaren bidez mundu zabalari begiratzeko aukera ere eskaintzen baitu. Helburu hura kontuan harturik, toki rarakundeek, Euskara Zerbitzuen bidez, era askotako baliabideak eskaintzen dizkiete familiei euskararen ezagutza eta erabilera bizkortzeko.

## AGOITZEK PARTE HARTUKO DU 2020.EKO EUSKARALDIAN

Iazko emaitza positiboak ikusita, Euskaltzaleen Topagunea indartuta eta gogotsu hasi da datorren urteko edizioa prestatzen. Eta berrikuntza batzuk sartzea ausartu dira ere antolatzaileak: espazioak erabiltzea du helburu, ariketa zabaldu dadin. Horretarako, entitateak gonbidatu ditu Ariguneak, hau da, euskaraz lasai aritzeko guneak, sortzera.

Edizio horri begira, pasa den azaroaren zortzian Agoizko euskararen alorreko eragileak elkartu ziren, Agoitzeko Euskaraldian parte hartuko duen erabakitzeko, eta, dagoeneko izena eman du. Urtearen hasieran hasiko da Agoizko batzordea entitateekin biltzen.



## FUTBOL ZELAIKO BELARRA INAUGURATU DA

«San Migel Zelai Berriak» belar artifizialeko belar berria zuen denboraldi hasieratik, baina joan den abenduaren 28an ofizialki inauguratu zuten, ehunka herritar bildu zituen ekitaldi batean.

Jardunaldiak futbol 8ko hainbat «jai-partida» ospatu zituen, non klubeko kategoria ezberdinetako talde guztiek parte hartu zuten, beterranoak barne. Ekitaldiaren une garrantzitsuenan, Ángel Martín

Unzué alkateak eta Javier Lizoain «Lipo» klubeko presidenteak hartu zuten hitza. Biek esker ona adierazi zioten elkarri, eta Rural Kutxak, babesleek eta klubeko aurreko zuzendaritza batzordeek ere eskerrak eman zizkieten. Diego López ere ez zuten ahaztu. Aurreko bat dantzatu zen ekitaldi hunkigarriari bukaera emateko. Ondoren, familia argazki bat egin zen, zeinetan elkarteak sostengatzen duten entitate guztien ordezkariak bildu baitzi-

ren: zuzendaritza batzordea, Polque, Nafarroako Futbol Federazioko ordezkariak, Rural Kutxa, udaleko korporatiboak eta jokalaria.

Proiektuak, Agoizko Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordeak aspaldi amestu eta gauzatu nahi zuena, eta udalaren laguntza izan du, eta lokatzarekin etengabe sortzen ziren arazoekin bukatzeko balio izan du.



## ABENDUAREN 28AN, AGOITZEN, BI INOZENTADA



Agoizko Udalak abenduaren 28an jakinarazi zuen, ohiko komunikazio-kanaletan, udalerrira hiriko zaindariaren jaien datak aldatzea aztertzen ari zela. Emandako arrazoen artean, "abuztuaren 15aren inguruan Nafarroako hainbat herritan ere jaiak ospatzen dituztela eta horrek publiko asko kentzen diola ekitaldien programari. Gainera, udalak uste du, "jatorrizko" data-tara (irailaren 29a, San Migel eguna) itzulita, Agoitzek nortasuna eta berezitasuna irabaziko dituela. Baldintza meteorologikoak aldatu direnez -orain aproposagoak eta beroagoak dira-, udalak uste izan du irailaren amaieran oraindik eguraldi onaz gozatzeko aukera izango dugula, eta, beraz, badi-rudi 1966. urtean erabaki zen data-aldaketa eragin zuen arrazoi nagusiak jada ez duela hainbesteko pisurik".

Era berean, iturri «handiak» jasaten duen harriaren gaitzaren «mehatxu» larriaren berri ematen zuen beste komunikatu bat kaleratu zuen, erortzeko arriskua zegoela eta desmuntatzea aholkatzen zuena. Idazketak honako hau jasotzen zuen: «Nafarroako Unibertsitateko Geologia Fakultateko Geokimika Departamentuak, foru geografiko monumentu historiko-artistiko ezberdinei buruz egin duen azterketa handinahi batean, agerian utzi du harriaren gaitzaren» mehatxu «larria, Nafarroako beste monumentu batzuen artean, Agoizko iturriari eragiten diona. Harriaren aldaketa hori harkaitzaren gaixotasun bat da, pixkanaka buztin bihurtzen duena, eta berreskuratzea eragozten duena. Agoizko iturri «handia» hasi da patologia hori intentsitate ezberdinarekin pairatzen, eta egoera bereziki nabarmena da fustean, harriaren gaitzak haren egitura mehatxatzen baitu. Hori dela eta, azterketaz arduratzen diren adituek Udalari gomendatzen diote erortzeko arriskuaren aurrean irtenbide bakarra 1801eko iturri neoklasiko hori desmuntatzea dela. Espazio hori hutsik geldituko da 218 urteren ondoren».

Egun osoan zehar, hiribilduan nahasmen bat egon zen botatako albisteekin; izan ere, auzokide askok, gutxienez, komunikatue-

tako bati sinetsi zioten, errugabeen eguna zela-eta asmo txarrik gabeko txantxa txiki batzuk baino ez zirela.

Ziurtasun osoz ziurta dezakeguna Agoitzek bere «abuztuko sanmiguel» gozitzen jarraituko duela da, eta iturriak bere aurpegi onena izango duela gutxienez 218 urtez.

